

EZ NAUK HASERRETUKO

Marc Egea

Eusk: Ele txera

INÉS ama bat da, eta adin txikiko semeari hitz egiten ari zaio.

INÉS: (Gozo) Maitea, komodako tiradera ireki duk?, zerbaiten bila henbilen?, zerbait hartu huen?... Ez nauk haserretuko, kutuna, hitz ematen diat. Erantzun iezadak bakarrik, mesedez: Hik ireki huen nire gelako komodako tiradera? (Haurrak ez du erantzun). Jakin beharra zaukaat, ez nauk haserretuko. Jakin beharra zaukaat... begira, azalduko diat: jakin behar diat lapurrik bazagoan, badakik?, gaez sartzen dituan lapurrak, lotan gaudean bitartean, eta gure gauzak ukitzen ditiztek, eta kalte egin ziezaguketek, zeren... horrela baduk polizia deitu beharko diat, eta beste etxe batera joan beharko diagu, poliziak ezingo baitik gure segurtasuna bermatu, hemendik oso urrun zagoan beste etxe batera, beste hiri batera, seguruenik, eta eskolaz, maitea, aldatu beharko duk, eta hire laguntxoak ikusteari utzi, Eric, Lucas, Marco, ez dituk sekula gehiago ikusiko... hori nahi duk? Ez, ezta. Ez nauk haserretuko, laztana, mesedez, esaiok amari: Nire gelako komoda ireki duk? Hik utzi duk horrela? (Zalantza handiko zenbait segundoren buruan, badirudi haurrak bere errua aitortzen duela burua makurtuz, eta **INÉS**ek, berriz, bere parrastarekin jarraitzen du: "ez nauk haserretuko, ez nauk haserretuko"...). Bai? Ireki huen? Hori bai bat duk? Begira iezadak hitz egiten diadanean, maitea. Hori bai bat duk? Katuak mingaina jan dik, maitea? Ez duk ahotsik? (Pixkanaka haserretzen) Hori bai bat duk. Nire komodako tiradera ireki duk. Seme, zenbat aldiz esan diat ez diadala nahi nire gelako gauzak ukitzerik? Asko, ezta? Eta hik berriz ukitzen dituk, asko gogaitzen naiala dakianean. Zein hizkuntzatan hitz egiten diat? Gauza bat esaten diadanean gauza bat duk. Kito! Hire gelara! Zigortua!

OHARRAK: Ezbairik gabe, **INÉS**ek bere hitza falta izan du: Haserretu egin da. Oso gozo hasi da, baina oso haserre amaitu du. Pixkanaka haserretzen da. Ez du bere hitza falta nahi, baina ezin du saihestu. Semeak aitortu bezain laster, hitz egin ahala berotzen hasten da. Eta ezin du gelditu. Monologo hori baliagarria da portaera-arku bat erakusteko. Tonu aldaketa progresiboa.

ALDAKETAK: Biraketa zakarra bada, bat-batekoa, monologoak kutsu barregarria hartzen du. Kasu horretan, bakarriketa baliagarria izan daiteke aktorearen ikuspegi komikoa erakusteko.

Ele txera
Hondolude zabala

